

HELBURUAK



GAITASUNAK →

	Zientzia Teknologia	Ikasten Ikasi	Matematika	Hizkuntza Komunikazi	Digitala	Gizarte eta Herritartasun	Giza eta arte kulturarako	Autonomia eta Ekimena
1. Norberaren premietatik eta taldearen premietatik sortu eta baliabide teknologikoak erabiliz konpon daitezkeen arazoak hautematea; arazo horiek argi eta zehatz definitzea, eta, azkenik, arazook konpontzeko, hainbat iturritan dagoen informazioa bilatu eta aztertzea.	X	X		X	X		X	X
2. Eremu teknologikoko objektuak eta sistemak metodikoki aztertzea, alderdi hauei buruzko informazio garrantzitsua jasotzeko: beste konponbide batzuk asmatzeko, objektu eta sistema horiek nola funtzionatzen duten ulertzeko, erabiltzeko eta kontrolatzeko modurik onena zein den ikusteko eta zergatik erabiltzen diren, zergatik egin ziren eta zein propietate dituzten jakiteko	X	X	X		X	X	X	X
3. Gai edo problema tekniko bati erantzungo dioten konponbideak diseinatzea, eta, horretarako, funtzionamendua irudikatzea, informazio-iturri egokiak erabiltzea, inplementazio-prozesuaren plangintza egitea; errespetuz, elkarrizketaren aldeko jarreraz, elkartasunez eta arduraz jokatzeko talde-lanean; eta, horrez gainera, norberaren ekimena, erabakiak hartzeko ardura, jarrera kritikoa eta norberaren buruarenganako konfiantza lantzea, espiritu ekintzailea garatzeko oinarria baitira; hau da, teknologia-aurrerapenerako oinarrizko alderdiak baitira.	X	X	X	X	X	X	X	X
4. Diseinatutakoa taldean gauzatzea, segurtasun- eta ergonomia-arauak errespetatuz baliabideak eta tresnak erabiltzean, gai edo problema tekniko bat garatzeko edo ondo ebazteko, eta, horrela, ikaslearen jakinduria teknologikoa handitzea, ezaguera zientifikoak, matematikoak eta teknologikoak metodikoki eta ordenan erabiliz, eta auto-estimua eta emozio-gaitasunak garatzea, prozesuan ateratzen diren emaitzekin elkarrekintzan aritzearen ondorioz.	X		X		X		X	
5. Lortutako emaitza eta jarraitutako lan-prozesua ebaluatzea, esperientzia barneratzeko eta problema teknologikoa ebatzi dela ziurtatzeko. Horrez gainera, eskatutako baldintzak kontuan hartuta, zer kalitate eta funtzionamendu duen egiaztatzea, eta jarduerak berak natura- eta gizarte-ingurunean dituen ondorioak aztertzea.	X	X					X	

<p>6. Aurreikusitako edo egindako ebazpen teknikoak azaltzea, kanal eta tresna egokiak erabiliz. Horretarako, sinbologia eta lexiko egokiak eta, behar izanez gero, argudioak erabiliko dira, bai eta baliabide grafiko eta informatikoak ere, bideragarriak diren eta zenbateko garrantzia duten aztertzeko, bai eta konponbide horiei buruzko informazioa elkarri emateko ere.</p>	X			X	X			
<p>7. Europa eta mundu osoa kontuan hartuta, Euskal Herriko lanbide eta baliabide teknologiko adierazgarrienak denboran eta espazioan identifikatzea eta kokatzea, bai lanbide eta baliabide historikoak, bai gaur egungoak ere, ekonomia-sektore guztietakoak, konponbide teknologikoek izan duten bilakaera historikoaren tokiko ikuspegia eta ikuspegi orokorra izateko eta garatzeko.</p>	X					X		

OINARRIZKO GAITASUNAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura zientifikoan, teknologikoan eta osasun-kulturan 2. Ikasten ikasi 3. Matematikan 4. Hizkuntza-komunikazioan 5. Digitala eta informazioaren trataerakoa 6. Gizarte eta hiritarra 7. Giza eta arte kulturarakoa 8. Norberaren autonomiarako eta ekimenerakoa